

GAKO EKONOMIKOAK

- Inflazioak moteltzen jarraitzen du, hori bai espero baino gutxiago, eta banku zentralak, salbuespenak salbuespen, tasak jaisteko presarik ez dutela dirudi.
- Burtsa indize nagusien igoera nagusiak, sektore teknologikoaren motorrean oinarrituta.
- Errenta finkoan galerak, zor publikoaren tasen igoeraren ondorioz.
- Euroak balio apur bat galdu du dollarrarekiko. Petrolioaren prezioa berriz igo da.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Otsailean, inbertitzaileek onartu dute azkenean tasen beherapena ez dela laster gertatuko. Hauek, espero dena egokitu dute, iazko urte bukaeratik gehiegizkoak baitziren. Igoera azkar baten Itxaropen hauek datu makroek berriz gora egitean oinarrituta, hazkuntza txikiagoa eta eskualdeen arteko aldean egungo testuinguruaren barruan, eta banku zentralen erabakia azkarregi hartu nahi ez dutenaren mezu argiekin lotuta dago. Alderdi makroekonomikoan, AEBk indar ekonomiko aztarnak utzi ditu, atzerapenaren beldurra uxatuz. ISM.an zerbitzuei buruzko datuak nabarmen egin du gorantz, eta enpleguaren txostena berriz ere hobetu da, bai lanpostuen sorreran bai soldaten inguruko arloetan. Euro zonak, bestalde, atzerapen teknikoak saihestu du, iazko azken hiruhilekoan ia ezer ere hazi gabe, baina jardueraren ahultasuna berresten, Alemaniarena gehienbat. Izan ere, jardueren aurreratutako datuak eskualde osoarentzat nolabait itxaropentsuagoak dirudite, eta okerrena igaro dela eta pixkanaka hoberantz doan agertokirantz zuzentzen ari garela adierazten dute. Halere, industria arloan oraindik ere ekonomia-uzkurduraz ari dira oraindik hitz egiten. Munduko bi ekonomia handienetako bik ezin izan dute saihestu uzkurdura: Erresuma Batuak, batetik, aurreikusitako astindua baino handiagoa izan du; eta Japoniak ere, hazkuntza negatiboko hurrenez hurreneko bi hiruhileko izan ditu. Inflazioari dagokionez, badirudi erabat tolestu duten titularrari uko egiten diola; izan ere, banku zentralen helburu-mailetara azkar jaitsiko dira, indar ekonomikoagatik, bereziki zerbitzuen arloan. Urtarrileko erregistroak, amerikarra (%3,1) zein europarra (%2,6), urteari erreparatuta jaisten jarraitu badute ere, merkatuak espero zuena baino apur bat gorago geratu dira. Erresuma Batuan, aldiz, KPlaren datuak ezusteko positiboak eman ditu, analistek uste zutena baino bi hamarren beherago kokatzean (%4). Irakurketa horiek, banku zentralak nahiago dute kontuz ibili egungo moneta politika murriztaile biratzeko momentua aukeratzeko. Amerikako Erreserba Federalak berretsi du interes-tasek gailurra ukitu badute ere, murrizketaren hasiera oraindik ez dela izango. Gainera, BCEren presidentek ere ez du presarik diruaren prezioa jaisteko. Banku Zentralen mezuek apenas ez dute eraginik izan merkatuan. Honek, tasen beherapenean atzerapena egongo dela onartu dute eta aukera gehiago esleitu dizkiete hasiera ekaina ingurura atzerateari, edo baita uztailea arte ere, eta oinarritzko 100 puntu baino gutxiago murrizketak espero dira, 2023aren bukaerako 150en ondoan. Bien bitartean, Japoniako bankua diruzko gainerako agintarien aurka bakarrik jarraitzen du, eta apirilean interes-tasa negatiboak baztertu ahal izango direla dirudi. Moneta-politika murriztaile bateko ingurumenaren iraupena luzatzeko aukerak zor handieneko eta premiazko birfinantzazio behar gehien dituztenen eragileetan arazoak egotearen zalantzak berpiztu ditu. Hala, otsailean zehar, asko hitz egin da kaudimenaren inguruko zalantzez adibidez, higiezin merkatuan, AEBko merkataritza sektorean eta bankukoan gehienbat.

ERRENTA ALDAKORRA

Burtsek aurrerapen garrantzitsuak izan dituzte otsailean. Alde batera utzi dituzte tasen inguruko zurrumurruak eta enpresa-emaizetan oinarritu dira. Oro har, azken hauek, ezusteko positiboak eman dute (AEBtan gehienbat) eta adimen artifizialarekin eta digitalizazioarekin lotutako guztiari bultzadana. Zentzu horretan, Nvidiaren kontuak, Microsoft eta Apple ostean kapitalizazioaren arabera munduko hirugarren enpresa handiena, adimen artifizialaren negozio gorakoraren balioespena justifikatzeko eta sektorearen gainberoketa beldurra baztertzeko bezainbestekoak izan dira. AEBtako, Europako (Stoxx 600) eta japoniar Nikkei indizeek maximo historikoak lortzeko katalizatzaile positiboak izan dira horiek. S&P-500 indizeak %5,17 lortu du hilabetean, eta Nasdaq teknologikoak, aldiz, %5,29, irabaziak enpresa erraldoi gutxi batzuetan kontzentratuta izan dituztelarik. Atlantikoaren alde honetan, Eurostoxxak %4,93 egin du gorantz, eskualdeko gainerako indizeen ildo beretik. Alemaniako DAXak eta Frantziako CACak ere errekor berriak lortu dituzte. Horietan, teknologikoek protagonismoa partekatu dute automobilgintzakoekin. Ibeixa izan da salbuespena, izan ere, banku-sektoreak -%0,76arekin zigortu baitu, eta indizean ez dagoelako ordezkari teknologikorik. Munduaren gainerako eskualdeetan, Japoniak %7,94 lortu du, tech enpresek, yena ahultzen duten, enpresa esportatzaileen irabaziak sustatzen eta herrialdera inbertsioak erakartzen dituzten interes-tasa negatiboek bultzatuta. Azkenik, emergenteek, oro har, %4,63ko onura lortu dute.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2024ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	10.001,30	EUR	%-0,76	%-1,00
EUROSTOXX-50	EUROPA	4.877,77	EUR	%4,93	%7,88
S&P-500	AEB	5.096,27	USD	%5,17	%6,84
DOW JONES	AEB	38.996,39	USD	%2,22	%3,47
NASDAQ 100	AEB	18.043,85	USD	%5,29	%7,24
NIKKEI-225	JAPONIA	39.166,19	JPY	%7,94	%17,04
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.020,94	USD	%4,63	%-0,27
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	3.337,20	EUR	%4,11	%5,30

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOA

Inflazio-datuaren dezelerazio txikiagoak, Fedeko eta BCEko kideen iruzkinek, tasen beherakadak ez direla berehalakoak baieztatuz, eta prezioak bizkortzeko nolabaiteko arriskua uzten duten datuak argitaratzeak, zor-tasen goranzko mugimendua eta balorazioak erortzea eragin dituzte. Horrela, 10 urteko bonu amerikarrak 34 puntu irabazi ditu, %4,25 arte; Alemaniak, aldiz, oinarritzko 25 puntu irabazi ditu, %2,41 arte. Bestetik, 10 urterako espainiar tasak oinarritzko 20 puntu irabazi, eta, ondorioz, Alemaniarekiko zuen aldea oinarritzko 6 puntu murriztea lortu du. Errenta finko pribatuak ere, zorrarekiko zuen aldea ere murriztu du. Kredituan, kalitate hobekoa, oinarritzko 5 puntu eta, arrisku handienekoa, oinarritzko 23 puntu. Azkenik, Euriborra lehenengoz igo da hiru hilabeteetan, eta otsailean %3,67ra heldu da, Banku zentralen tasa ofizialen beherapenen aurreikuspenak doitu ondoren.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2024ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	3,94	0,03	0,03
	6 HIL.	3,91	0,07	0,05
	12 HIL.	3,75	0,18	0,24
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	2,90	0,47	0,50
	5 URTE	2,43	0,38	0,48
	10 URTE	2,41	0,25	0,39
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	3,08	0,39	0,11
	5 URTE	2,97	0,26	0,35
	10 URTE	3,29	0,20	0,30

Iturria: Bloomberg

DIBISAK ETA LEHENGAIK

Tasa-murrizketen berehalako eraginari buruzko baikortasun txikiagoa eta AEBko makro adierazleek islatzen jarraitzen duten sendotasuna direla eta, euroaren aldean pixka bat igo zen dibisa amerikarra babesten jarraitu dute, eta aldaketa 1,08 ingurukoa da. Yenak, aldiz, europar monetarekiko balioaren %2 inguru galdu du, eta 162 yen/eurotan kotizatu du, Bojak esan duen moneta-politika moldaeraz izango dela denbora batez. Lehengai dagokionez, Brent petrolioak %2 baino gehiago igo da, Ekialde Ertainean tentsio geopolitikoaren jarraitutasunaren ondorioz. Gainera, urreak %0,23 igo du.



Iturria: Bloomberg